

**KARABIXA ETXEBARRIN**  
**(HERRIGINTZAREN EREDU)**

Sarritan entzuten dugu *herrigintza* berba, eta nork erabili, halako esangura hartzen du. Oraingo honetan, San Andres Etxebarrikoan lagun talde batek egindako lana ekarri nahi dut hizpidera. Izan ere, Etxebarrian badago kultur elkarte zeregin-tsua, Txerkaratz izenekoa, han-hemen antzinako gauzen bila eta beraiek berreskuratzen diharduena. Hori ez ezik, berez nahikoa garrantzitsua baita, Etxebarriko bizilagunetarik ahalik eta gehienek esku har dezaten ahalegina egiten du.


**Zer den Txerkaratz**

Txerkaratz Kultur Taldea Etxebarriko lagun talde batek sortutako erakundea da, eta bere xede eta helburuen artean euskal kultura eta beraren sustaiak landu eta berreskuratzea du. Eurek diotenez, karea egiteko langintzari buruz dihardutelarik, galduta zegoen zergintza bat berreskuratu nahi izan dute; bakarka egin ezineko langintza horretarako elkartzeak duen garrantziaz eta gaur egun eduki dezakeenaz pentsarazi nahi izan dute; belaunaldi desberdinetakoen artean (nagusi, heldu eta gazteen artean) lotura izan eta harremanak sendotu nahi izan dituzte, lana elkarrekin eginez; eta ikuskizun bezala eskaini nahi izan diete Etxebarriko bizilagunei bezala ingurukoei.

Beraren sorrera piztu zuen ekitaldi garrantzitsua 1995. urtean egindako *Txondorra* dugu. Izan ere, urte hartako udabe-

rrian, Simon Salaberriaren gidaritzapean, txondorra egin zen Egierrea (Egixarre<sup>1</sup>) baseritik hur. Ekitaldi hark egundoko arrakasta izan zuen alderdi guztietatik aztertuta: lehenengo eta behin, uste baino ikatz gehiago eman zuen txondorrek; bestetik, herriko lagun askok hartu zuen esku ekintza hartan; azkenik, ikusle asko azaldu zen bera ikustera.

Karegintzarekin, berriz, ondoko helburu hauek erdietsi nahi izan dituzte: harria ateratzetik eta karea egin arteko prozesu guztia erakustea;



*Karabia eta bere aiaka.*



*Garbitu ondoren.*

ikuskizun zabala izatea, Lea-Artibaiko herriei eta ahal denik eta inguru zabalenera hedatzeko; herriarren partaidetza lortzea; 30-45 minutu bitarteko bideo-grabaketa baten bidez, prozesu guztia eta karearen erabilgarritasuna islatzea.

Bada, ekitaldi horrek bultzaturik, lagun talde

<sup>1</sup> Testuan zehar toki-izenak aipatuera, testu idatzi zaharretan azaltzen den izena erabiliko dut eta parentesi artean, berriz, herriko hizkeran esaten den legez.



horrek kultur taldea sortzea erabaki zuen; eta esan, eta egin. Horretaraxe sortu zen Txerkaratz Kultur Taldea 1996. urtean. Talde horretako kideak, berriz, honako hauek ditugu: lehendakaria, Rufinó Guenaga; lehendakariordea, Dulce Garitaonaindia; idazkaria, Luis Maguregi; diruzaina, Mari Jose Etxaniz; eta Eva Ansola eta Simon Salaberria, elkartekideak.

Baina, lagun horiek Txerkaratz Kultur Taldeko berezko kideak badira ere, Etxebarriko bizilagun askok ere esku hartzen du haren ekintzetan eta lagundu egiten du; laguntasuna, ondoririk ikusiko dugun legez, era askotakoa izaten da: batzuek lanetan egiten dute euren ekarria; beste batzuek, aldiz, dirutan; inork, ekai edo materialetan; eta abar.

### Zer den karegintza

Karea, karabi deitzen den labean, karaitza edo kare-harria erretzearen ondorioa da. Langintza honi karegintza deitzen zaio.

Era honetan karaitza kiskali egiten da, eta **kare bizia** sortu; hasierakoekin konparatuz, kolore zuri eta pisu gutxiagokoak ditu.

Kare bizia uraz nahasterakoan, **kare hil** bihurtzen da, denborarekin, herriz ere, hasieran zuen gogortasuna har dezakeelarik.

### **Karabia Txerkaratz Kultur Taldeko lankideen buru-gogoetan eta prestakizunetan**

Hortaz, taldea, osotu bezain laster, karabia egiteko ahaleginak egiten hasi zen; horri begira, hainbat eginkizun burutu zituen:

Lehenengo eta behin, herriko adinekoengana jo zuen, ea norbaitek egina zuen jakiteko; eta horrelaxe aurkitu zituzten hainbat lagun: Simon Salaberria bera, Egieerea baserrikoa; Julian Lapazaran, Imittolakoa; Jose Zubizarreta, Orizate (Oizete) baserrikoa, eta abar; horrezaz gainera, itaundu egin zitzairen ea prest egongo ziren beraiek zuzentzeko beharleku hori, eta baiezkoa eman.

Beste arazo bat karabia bera topatzea izan zen. Helburu hori gidari zutelarik, Etxebarrian ezagun ziren karabietara joaten hasi ziren taldekideak, baina zaharregiak ez zirenak, hondatuegi zeuden, bestela, zaindu gabeak ziren edo, bideak egiterakoan, lurrez beteak zeuden, gehienak sasi artean; horretara zebiltzala ezusteko ederra jaso zuten. Ikus dezagun zelan konstatzen duten taldekideek eurek aurkikunde hori: «Hara, bada, ahuntzak lekutik aldatzen zebilen gure lagun batek non bilatzen duen zulo handi bat, herritik hurbil pinadi baten erdian! Ikustera joan ginenean, zirrar berezia sentiarazi zigun: **“karabixa”**, barrua nahikoa garbia zuena eta naturak denboraren poderioz bete ahal izan zuenaz bakarrik berdindua. Atzeko aldean arbela ondo ikusten zen, aurrealdean harri landuz altxatutako horma txikitxoak ikusten zitzaion baina... a, zein ataka polita!». Karabia Agirre basoetan zegoen. Erdialdetik gora apurtuta zegoen, baina konpontzeko modukoa zela iritzi zioten igeltsariak. Agirre basoen jabearengana jo zuten haimen eske, Maria Gandiaga Agirre (Agarre) baserrikoarengana. Maria Gandiagak, baldintza batzuk ipini eta Txerkaratz Kultur Taldekoek onartu ostean, haimena eman egin zien.

Ondorik, informazio eta jakin-iturrien bila hasi ziren; horretarako, dokumentazioa bilatzeko lana bi ataletan banatu zen: a) idatzizko informazioa; eta b) ahozko informazioa.

Idatzizko informazioaren artean, honako hauek aipa daitezke:

1) Bilboko **Euskal Museoa**n aurkitutakoa:

—Pérez de Villarreal, Vidal eta Izeta, Mariano: «Hornos de cocer cal, "Kisulabeak"», *Cuadernos de etnografía en Navarra*, Institución Príncipe de Viana.

—Rosell, Jaume: *Producción tradicional de la cal*.

—Martínez, Xabier: «Nekazal eta baso aldeko kare ekoizpenaren prozesua Bizkaian», Etniker, Bizkaia.

2) **Labayru** Institutuko Etnografia Saileko **Gurutzi Arregiri** eskatutako informazioa.


3) **Aranzadiko Fermin Leizaolari** eskatutako informazioa.

4) Horrezaz gainera, hainbat ekai bibliografiko batu zuten,

hala nola, Joxe Migel Barandiaran zenak karabiari buruz argitaratutako saiakera eta artikuluak, beste hainbat aldizkaritan azaldutako ekaiak...

Ahozko informazioa jasotzeari dagokionez, berriz, hauexek azpimarra daitezke:

1) **Herriko jendearekin hitz egin eta informazioa egiaztatzea**: zeintzuk diren karabi motak; non dauden edo egon diren Etxebarrian; zein material behar den; zein den bete behar den prozesua eta abar.



1.- *Ataka*: egurra zartzeko irekidura.

2.- *Eltzea*: sua egiteko tokia.

3.- *Erlantza*: labearren goialdea eta eltzea bereizten dauazan koska.

4.- *Auskoa*: eltzea eta kanpoaldea lotzen dauazan arnasbidea (tiroa).

2) Zeraingo “**Mandioa**”ren arduradunekin egon ziren, antzeko esperientzia bat iruzkintzeko; elkarrizketak izan zituzten, beraien arazoak ezagutzeko.

3) Zeanuriko **Ipizki** taldekoekin (Jon Urrutxurtu eta Intxaurraga anaiekin) hitz egin zuten, udan erre zuten frantses karabi edo kaleroari buruz.

Hortaz, bazirudien karabia egiteko behar ziren osagai guztiak eskuartean zituztela: bazekiten zer egin behar zen; bazuten nor egin; eta, azkenik, bazuten non egin. Beti ere, berealdiko garrantziko arazoa zuten konpontzeko: dirua, alegia, sotsak nondik eta nori lortu.

### **Karabia egitea**


Lehenengoz leku aproposa aukeratu eta bertan mota aprobetxatuz, zulatu egiten zen, arbela edo antzeko harria (ezelan ez karaitza) bilatu arte.

Ondoren 4 metro sakon eta 3 metro zabaleko biribil antzeko zuloa egiten zen, aurrealdea landutako hare-harriz jasotzen zelarik, bata bestearekin inkatzeko buztinezko masa erabiliz. Horma honetan egurra sartzeko irekidura uzten zen: **ataka**.

Barruko aldean bi alde desberdin nabari daitezke, koska batek, **erlaitzak**, bereizten dituelarik. Beheko aldetik, **eltzetik**, 4 bat metroko luzerako arnabidea dago, **auskoa**; bertatik labera airea sartzen da errekontza ahalbideratzeko eta beharrezkoa da garbi egotea; izan ere, kalitatezko karea lortzea eta erretze denbora gutxitzea beraren arabera daude.

Lehenengo, erlaitza oinarri bezala hartu eta karaitz zapalenekin horretarako bereziki apurtu eta aukeratutakoekin, bobeda bat, **giltzadura**, jasotzen da inolako inkagarririk gabe, harrien kontrapisuaz baliatuz bakarrik.

Gorengo harria, **giltza**, goitik behera sartzen da eta berak egiten du gogor gelditzeko behar den indarra.



1.- Trontza. 2.- Matxeta.  
3.- Burdin ziria. 4.- Porra.

Ondoren, eta giltzadurak duen besteko garrantzirik gabe gainontzeko karaitzaz betetzen da goraino, kanpotik tontor antzean gelditzen delarik **meta**.

Horrela, bada, dagoeneko karabiaren bi zatiak hobeto bereiz daitezke. Giltzaduraren gainean harria kokatzen da eta, beronen azpian, egurrez egin-

dako sua. Modu horretara kare zuria sortzen da, frantses karabi edo kaleroan sortutakoa ez bezalakoa; izan ere, azken honetan egurra eta harria batera erretzen direnez, kare zikina lortzen da.

Kargatu ondoren azkeneko harriekin gurutzua egiten zen eta sua eman aurretik, ohitura zenez, tontorrean elorri adarra ipintzen zen. Honek ziurtatzen omen zuen jardueraren arrakasta. Elorri adar hori barik, giltzadura apurtu eta karga guztia eltzera jauts zitekeela pentsatzen zen. Adarra erretzen bazen, ostera, ziurtatuta zegoen harria ere ondo erreko zela.

Labea kargatzea amaitzearekin batera, ataka ixten zen hare-harriekin edo baita ere burdinazko xafla batez, metro erdiko irekiunea zabalik utziz erregaia sartzeko. Horrela, bada, erretzeko behar den airea bakar-bakarrik auskotik sartzen zen tiro ona ziurtatuz.


### Agirre basoko karabia taxutzeko lanak

Hainbat lan egin behar zirela konturatu ziren, berbarako, proiektu eta aurrekontua egin, egin beharrekoak zehaztu, eta zenbatekotu haien arabera, egunak zehaztu, ekaien hornizio eta zenbatekoa...

Hauek dira, besteak beste, egindako atazetarik batzuk:

1) Herriko arazoak darabiltzan arkitektoarekin berba egin zuten eta proiektua burutu zuen honek, lanei ekin ahal izateko.

2) Karabia konpondu beharra zegoen; horretarako Juan Jose Etxaniz (Gandiaga-errotak [Gandixa-errotak]) igeltsariak antzinako modura egin zuen konponzioa eta, horretarako, buztin eta harriak erabili zituen. Karabia konpontzeaz gainera, ingurua ere egokitu behar izan zen, hara heldu ahal izateko; egin-eginean ere, guzti-guztia sasipean zegoen. Hori garbitzeko, herritarrek egundoko laguntasuna eman zuten (egia esan, herritarrek euren egindako ahalegina dela esan behar dugu).




1.- Narra. 2.- Porkatxa. 3.- Adaroa.

Zehatzago kontatuz, gauzak, gutxi gorabehera, honetaraxe gertatu ziren: a) basoa garbitu behar zen: otea, zepak, laharrek eta abar asko eta handiak ziren. b) Karabia bera garbitu behar izan zen; lutrez beteta zegoenez, lurra atera beharra zegoen 1,5 m-ko sakoneran; bestalde, aurreko horma harri landuz egindakoa izanik, harri landuz jaso behar zen atzealdearen arraseraino. c) Horma horren gainean, bertan, pinu handia zegoen, kendu beharrekoa, horma apurtzeko zuen arriskuagatik. d) Karabiaren inguruan zeuden 6 pinu bota beharra zegoen. e) Sutautsaren bidea ez zen ageri eta bilatu egin behar zen. f) Bideak ireki behar ziren (baserrietara doan bidetik eta karabiraino) ikusleak joateko, zein kamioiak egurra eta harria deskargatzeko.

### 3) Harria erosi eta garraiatzea.

Karaitz edo kare-harria behar da karea lortzeko, argi eta gogorra bada hainbat hobe. Beta zuri asko badu, gatzarria, ez da ona, batez ere, giltzadurarako; hau sua emaneran lehertu egiten da eta karga guztia behera erortzeko arriskutan jartzen du. Lea-Artibain, Kanteramotz eta Arnotik ateratzen zen. Harrobian, barrenoez zulatu eta bolboraz tiro eginez apurtzen zen





1.- Romana. 2.- Otzara.

harria. Giltzadurarako behar zirenek, ahalik zapal eta handienak behar zuten izan eta pikatxoiaz lortzen ziren. Harria karabi ingurura ekarri ondoren, harginek hargin-mailekin apurtu egiten zuten eta sailkatu egiten zen, giltzadurarako ataka parean eta kararako motaren goiko alde-

an utziz. Karabi hau egiteko, begia Markina eta Mutrikuko harrobietan ipini zuten, eta harriak harrobiotatik ekarri.

#### 4) Erregaiak ere beharrezkoa da.

Antzina, sutarako erregai guztia basokoa zen, edozein arbola, txara, ote zein adarrek balio zutelarik, ira (idie) izan ezik; azken honek ke eta hauts asko baina berotasun gutxi ematen zuelako. Garrantzi handikoa denez erretzeak dirauen bitartean su bero eta indartsuari eustea, haritza eta pagoa erabiltzen ziren sastraken osagarri bezala. Ohitura zen, urtean zehar, basoa garbitzerakoan bertan mozten ziren txarekin txortak egin eta bigurriaz lotzea adarzak, udaberrian karegintzarako behar zirenean prest egoteko. Neguan haritza, urkia, arkazia, pagoa... batzen ziren, berotasun handiko erregaiak baitira. Gisats, ote zein zuhaixkak gorde egiten ziren, sua piztearen erritualerako. Enbor eta adar biribilek neket-suago hartzen dutenez su, burdin ziriz pitzatutakoak erabiltzen ziren. Oso garrantzitsua zen sugarra handia izatea, bere indarrez erregaiak airean mantentzen zuelako inongo euskaririk gabe eta harrien bitartekatik zehar pasatuz hobeto erretzen zuelako.

Oraingo honetan egindako karabian, egurra erosteko eginkizunak bete ziren. Honi dagokionez, esan behar da antzina txara eta otea erabiltzen zirela, ez, oster, ira, ezik beronek hauts handia ateratzen du, eta berotasun txikia eman.

5) Beste alde batetik, aseguriak kontratatu ziren, lankizun horretan zerbait gertatzen bazen, arazorik sor ez zedin.

6) Hurrenik, eginkizun guztiak bideoz jasotzea Rufino Guenagaren ardurapean jarri zen.

7) Herriko biztanleekin hitz egin zuten, txandak antolatzeko; modu horretara, suari etengabe eutsiko zitzaion.


8) Lan egingo zutenentzako jan-edanariak hornitu eta zerbitzatzea.

9) Dirua lortu zuten, aurreko guztia egiteko. Alderdi honi dagokiolarik, hauxe esan beharra dago: hiru milioitik gorako aurrekontu hau betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Etxebarriko Udalaren laguntasuna lortu zuten. Diru-laguntasunak emateari dagokionez, gainera, ezin dugu ahaztu hainbat herritarrek emandakoa; dirutan zein ekaitan zein beste edozelan. Besteak beste, hauek dira laguntasuna eman dutenak: Agirre (Agarre) baserria, Andikara (Andika) basogintza, Arizmendi harrobia, Artibai indusketak, Esteban Malaxetxebarria, Galdos zerrategia, Kamiño zerrategia, Malax indusketak, Otsolo taberna, Pedro M<sup>a</sup> Ibarzabal eta Santi Uzuriaga zerrategia.

### Gazteek egindako lanak

Baso lanetan jardun zuten langileei lagundu egin zieten. Langileek motozerra, motosega etab., erabiltzen zituzten; gazteek, ordea, beste lan guztia egin zuten: enborrak mugitu, adarrak batu, zikinak erre... eta horrek kostua asko merkatu zuen.

Beste alde batetik, pinu-adarrak pilatu eta txortak egin zituzten; lotu eta atakatik sartzeko modura prestatu zituzten.



1.- Bolantie. 2.- Hargin-mailua.

Gainera, karabia harrutik garbitu eta harrietan inkatuta zuen huntzorria eskuz kendu zituzten. Azkenik, horma egiteko harri egokiak apartatu, kargatu eta deskargatu zituzten.

### **Karabiari ekin**

Horrenbestez, karabia eta beraren ingurua garbitu ziren. Harrea-harriz altxatu zen aurreko horma, eta tiro edo arnasbidea atera.

Ondorik, kare-harria harrobitik ekarri ondoren, hargin-mailez apurtu eta arku edo ganga egiteko harririk egokienak bereizi ziren.

Antzina otea, txara eta abar erabiltzen ziren, baina eginkizun honetarako alertze, alaka, haritz eta pinu-adarrak erabili ziren.

Baso lanetan ohituta zeudenek egurra burdin ziriekkin ezpaldu eta prestatu zuten. Bitartean, gazteenek, inguruan zeuden pinu-adarrekin egur karga txikiak egiten zituzten. Hortaz, errekin eta erregaia prest zeuden!

Berez, udaberrian burutzeko ekintza izango zen, baina abuztuan egitea erabaki zen: batetik, asmoa prozesua erakustea zelako eta, bestetik, lana egin behar zutenek oporrak izanik ez zutelako galduko beren lanpostuko egunik.

1997ko abuztuaren 6an karabia kargatu egin zen; Julian Lapazaran eta Simon Salaberriaren esanetara Juan Jose eta Jose M<sup>a</sup> Etxanizek arkua altxatu zuten, harriak bata bestearen gainean jarri inolako inkagarririk ipini gabe eta kontrapisuen bidez.

Arkua jasotzeko, harri handi eta zapalena aukeratu behar dira. Lanari ekinda, apurka-apurka harriak jarriaz giltza ematera heltzen da; giltza ematen da, arkuko harri guztiak gogor eutsiko dien harria goitik behera sartuz. Kasu honetan, karabia kargatzean, harriak bi bider gainbehera etorri zirela esan behar da, oso egoera arriskutsua sortaraziz; egin-eginean ere, lana ez zen batera erraz edo gozoa izan. Ondoren, ikusle guztiak hartu zuten parte eta, giza katea eginez, harriak eskutik eskura pasatuz kara-

bia kargatzen zen goian tontorra ageri arte. Lan horiei guztiei buru emateko, gurutze eta adarra ipini ziren harrien gainean.

Zalantzak zeuden, harriak behar bada handiegiak ziren eta.

Lehenengo pausoa bete zela-eta biharamunera arte utzi zen lanari ekitea.

1997ko abuztuaren 7an, goizeko 9etan sua eman zen eta, antzinako ohiturari jarraituz, Jose Maria Rementería abadeak (Bustindegiko semeak) langileak, karabia, egurra eta sua bedcinkatu ondoren, etxeko txikienak edo jaunartzea egin gabeko ume batek (oraingo honetan Jon Guenagak), nagusi baten laguntzarekin eta bedcinkatutako kandela batekin sua emateko ardura izan zuen.<sup>2</sup>

### Harria erretzea

Eltzean txara, adartxoak... ipintzen dira eta su ematen zaio.

Hasieran, sua motel samar egotea komeni da; hori egiten da, harria lehortzeko, bai eta kare-harria apurka-apurka berotzen joan dadin. Bestela, sua gogorregia bada, arkuia apurtzeko arriskua dago.

Laster hasten da harria izerditan eta bat egiten dute harriek batak bestearekin. Oraintxe da garaia suari bizi-bizi eusteko. Ataka itxi egiten da eta egurra porkatxaz sartzeko bakarrik zabaltzen da. Ondorik izerdia lehortu egiten da. Suari eusteko, 6 orduko txandak antolatu ziren, sutara egurra bota eta garretan egon zedin denbora guztian. Horrelaxe iraun behar dute beharginek tontorreko harri gori-gorien artetik sugar berdexkak agerian azaldu arte.

Tontorra bera dagoeneko txikiago azaltzen da. Egur emateari utzi egiten zaio eta harea botatzen da txingarretara, al bait arinen amatatzeko.

<sup>2</sup> Antzina, karabiak jaiegunetan zehar erretzen jardutea nahi bazen, baimena eskatzen zitzaion herriko elizako abadeari, hori egiteko; ekitaldi horren berri ere azaldu egingo da bideoan.

Hasi ziren bisitariak etortzen! Txikitan ikusi izan zutenak, zer den ere ez zekitenak, gaztetan egin izan zutenak, oportetan egonik kultur ekintza bat zela-eta ikusi nahi zutenak, lagun aldrak, familiak, aitona-amonak ilobez lagundurik... 1.500 lagundik gora hurreratu ziren karabira, 3 edo 4ko taldetan zeto-zelarik; baina familia osoak ere etorri izan ziren, Euskal Herriko toki askotatik zein kanpotik ere. Multzorik handiena, karabia gauez ikusteaz gain, girotzeko jaitxoaz gozatzea nahi izan zutenek osatua, adin guztietako 300 bat pertsonarena izan zen. Helbururik garrantzitsuena lortuta zegoen: jendearen interesa piztu zen.

Herriko gaztetxo batzuek, ordura arte elkarlanean jardun bazuten ere, horretan segitu eta bertan egin zuten lo kanpin-dendetan; beste batzuk, ostera, euren kontutxoak elkarri esanez aritu ziren biharamunera arte; txokolate beroak indarberritu eta herriko guraso elkartekoek gauerdirako zer prestatu zuten jakiteko irrikaz zeuden. Izan ere, gau baten, Rakel Pujana trikitilariak, eta Joseba Arza, Gregorio Larrañaga (Mañukorta) eta Ramon Muniozguren bertsolariek giro eman zieten hara bildutako gazteei.

Hiru egun garretan egonda nahikoa zela pentsatu arren, nahikoa harri handia zela eta, egur nahikoa zegoenez, bi egun gehiago sutan edukitzea erabaki zen.

Hozten laguntzeko, eltzeko txingar guztia kanpora atera zen.

Heldu zen ateratzeko eguna. Goiko tontorra ez da inoiz ere erretzen eta apartatu egin behar izaten da.

Biharamunean ateratzeari ekin zioten Txerkaratz Kultur Taldekoek eta laguntzaileek, eta desberdintasun handiak nabari ziren: oso ondo erretako harriak zeuden, baina baita ere azaleko 2 edo 3 cm erreta zutenak ere. Azken hauek busti egin ziren, galbahetu ondoren kare hautsa aprobeixatu ahal izateko. Egun horretan, Julian Lapazaranekek makalaldia jasan zuen, tentsioak behera egin ei zion, osagileek esan zutenez, eta Galda-

kaora eroan behar izan zuten ospitalera. Zorionez, ondorerik gabeko gertakizuna izan zen.

### Karea karabitik ateratzea

Ateratzen hasi orduko gurdiak prest egoten ziren inguruan eta, karea otzaretan atera ondoren, haietan kargatzen zen, zuzenean baserrietara eroateko. Komenigarriena jarraian deskargatzea zen, bestela umelduz gero hartzen zuen berotasunarekin gurdia erretzeko arriskua zegoen. Antzina, eraikuntzarako, onenatarikoa erabili behar zen; karabian bertan apartatzen zuten eta saltzekoa bazen, "romana"z pisatzen zen.

Kare hila zen komenigarria obretan; hori lortzeko lehenengo, beharra karea bustitzea izaten zen; horren ondorioz sortzen zen lurrina sendagai legez arnasa hartzera arnasestua zuten asko eta asko joaten zirelarik.

### Erremintak

Ez ziren asko, behar ziren erremintak.

Garraiorako: gurdiak; batzuk bolketedunak, zenbait tokitan **donbero** izenekoak. Horrezaz gainera, **narra** eta **bolantea** antzina erabiltzen ziren.

Harria prestatzeko: **hargin-mailu** desberdinak.

Egurra prestatzeko: **aizkora**, **trontza**, **matxeta**, **porra** eta **burdin ziriak**.

Sua xaxatu, indartu eta erregaia atakan barrura sartzeko: **porkatxak**, sarda antzekoak, punta bikoak, pago adar hezez



egindakoak. Dozenaren bat aurretiaz prestatuta edukitzea komeni zen. Labea garbitzeko, berriz, **adaroa** (berba hau Etxebarrian galduta dago edo ez da ezagutzen eta '*media lunie*' esaten zaio).

Pisua neurtzeko, berriz, **romana** eta **otzara** erabiltzen dira.

### **Karearen erabilgarritasuna**

**Eraikuntzan**, gehienbat, xede bitarako erabiltzen da karea: 1) mortairu edo kareorea egiteko, eta 2) letxada edo karesnea lortzeko. Karea, harea eta ura nahastuz lortzen da lehenengoa; eta karea eta ura nahastuz, karesnea.

**Nekazaritza** eta **abeltzaintzan**, soroan ongarriztat erabiltzen da, bai eta kokoen kontra ere. Horrezaz gainera, arbolak babesteko usatzen da, enborrak zurituz. Beste alde batetik, hegaztiei odolustea eragiten dieten kokoak hiltzeko erabiltzen da. Beste erabilera batzuk ondoko hauek dira: ganadu zein ardien hanketako gaixotasuna sendatzeko eta ira ez ernatzeko.

**Sendagai** legez, honako erabilera hauek ditu: tifusaren kontra; nafarriaren kontra; gaixoren bat zegoen etxeen atarian botatzen zen; ibilian zapaldu egiten zen eta, norbera babesteaz gain, etxe guztira zabaltzen zen, inori ez inkatzeko. Horrezaz gainera, bazen arnasestuaren kontrakoa ere; kare biziak lurrina botatzen du, kare hil bihurtzen denean; bada, lurrin hori arnastu behar da.

Horrezaz gainera, arrautzak kontserbatzeko eta zuriketarako ere erabiltzen zen.

### **Ohiturak**

Baserri batek baino gehiagok, auzolanean jardunez hartzen zuten parte, lan neketsua zelako. Basoa garbitzerakoan txaraz egur kargak egin eta edozein baserriako karegintzarako gordetzen ziren. Arkua jasotzeko aproposa zen harginari deitzen zitzaion.

Arantza zuriaren adar bat jartzen zen tontorrean eta harrizko gurutze baten irudia egiten zen erretzea ondo burutu zedin. Horrek jardueraren arrakasta ziurtatzen ei zuen. Arantza zuria ipini ezik, arku behera jauts zitekeela pentsatzen zen; arantzaren adarra ondo erretzen bazen, ostera, ziurtatuta zegoen harriarekin ere, gauza bera suertatuko zela.

Bedeinkazioa: dena prest eduki ondorik eta sua eman aurretik parteko ziren familiak eta bestelako langileak biltzen ziren karabiaren aurrera. Abadeak, eginkizun honetarako apropos jantzita erroketan eta estolarekin, eta akolitoo urbedeinkatu-ontzi eta hisopoarekin etorri ondorik, lau errezu egiten zituen:

Lehenengo errezuan, zeruaren babesa eskatzen da bertan lanean jardun edo lagundu behar dutenentzat.

Bigarrenean, karabia bedeinkatzen da eta beraren funtzionamendua eragotz daitekeen edozer, zeruaren bedeinkazioaz, urrutiratzea eskatzen da.

Hirugarrenean, erregaia bedeinkatzen da: egurra eta harria; karca inori kalterik egin gabe sortu eta baliagarria izan dadila eskatzen da.

Laugarrenean, sua bedeinkatzen da eta Jainkoari eskatzen zaio, Berak indartzea suaren erretze gaitasuna: "Tu quoque ipsum corrobora"

Hona hemen XIX. mendean erabiltzen zenaren latinezkoa testua:

*«V: Adjutorium...*

*«V: Domine exaudi...*

*«V: Dominus vobiscum...*

*«... Oremus: Exaudi nos Sancte Pater omnipotens Aeternae Deus et mittere digneris sanctum Angelum tuum de caelis, qui custodiat, foveat, visitet, atque defendat omnes laborantes in hac Calcaria, et ad eam concurrentes.*

*«... Per Dominum Jesum Christum...*

*«... Oremus: Adesto supplicationibus nostris, Domine*



*Sancte Pater Omnipotens Aeternus Deus, et praesta auxilium gratiae tuae, ut quae sunt adversa sive contraria in hac Calcaria farulorum tuorum, expellantur tua sancta benedictione, quae maneat supra ea semper.*

*... Per Christum.*

*Ad Ligna et Petras.*

*... Benedic domine haec ligna atque petras ut in calcem vertantur, et praesta ut sine laessione aliqua suo munere fungantur.*

*... Per Christum...*

### Azken hitzak

Lan honetan esku hartu dutenak asko eta asko dira; ondorik eta, omnen gisa, beraien izenak aldatuko ditut alfabetoaren hurrenkeran.

Jose Juan Agirregomezkorta; Migel Agirregomezkorta; Juan Antonio Aierza; Ainara Albizu; Daniel Albizu; Haritz Albizu; Jesus Alzibar (Araba); Eva Ansola; Arantza Ansoregi (Oluaga [Olua]); Amalur Arrieta; Izarne Arrieta; Garikoitz Artatxebarria (Aldeko); Joseba Artatxebarria (Aldeko); Joseba Arza (Urta); Mainer Arza (Urta); Mirari Azkune; Ainhoa Azpiazu; Juan Luis Bazterretxea (Etxarte); Josune Bengoa; Harkaitz Bereziartua; Aimar Bilbao (Txikiñe); Juan Egurrola (Txikiñe); Laura Etxabe; Roman Etxabe; Frantzisko Etxabe (Txikito); Joseba Etxaniz; Leire Etxaniz; Zuriñe Etxaniz; Jose Maria Etxaniz; Juan Jose Etxaniz; Mari Jose Etxaniz; Javi Etxaniz (Garro); Amaia Ezenarro; Anjel Mari Ezenarro; Ander Franco; Victor Franco; Maria Gandiaga (Agirre [Agarrel]); Andres Gandiaga (Jauregi); Dulce Garitaonaindia; Agustin Guenaga; Jokin Guenaga; Juli Guenaga; Rufino Guenaga (Assorin-zabal [Atzoin-zabal]), Xeber Guenaga (Ardiden [Adrin]); Antonio Guenaga (Ardiden[Adrin]); Mari Karmen Hernando (Ibarlotxa); Karmelo Ibarluzea; Ismael Ibarluzea (Urbietza [Urbitxel]); Ivan Ibarluzea (Urbietza [Urbitxel]); Mireia Ibarzabal; Pedro Mari Ibarzabal (Asta); Pilar Ignacio; Jesus Iriondo (Arritolaza [Erretoltza]); Aitor Iruguenpagate; Iñaki

Iruguenpagate; Javier Iruguenpagate (Urrusolo); Jose Antonio Jaio (Otsolo); Josu Kaltzakorta; Eugenio Landeta; Julian Lapazaran; Roberto Larruskain; Xabat Lertxundi; Anjel Lobera (Asorin [Atzoin]); Jesus Loiola; Luis Maguregi (Barenda); Esteban Malaxetxebarria; Jose Malaxetxebarria (Antxi); Pedro Mandiola; Jose Manzisidor (Kamiño); Jose Mendibe (Oluaga[Olua]); Ramon Mendiola (Urrusolo); Javier Muniozguren (Elordi); Joxe Ondarra (Arnorriaga [Arnorixa]); Jose Luis Plaza (Errekalde); Patxi Salaberria; Simon Salaberria; Agustina Solozabal; Juanito Solozabal; Iñaki Sudupe; Lore Txurruka; Apontso Unamuno (Ezkutuzulo); Mari Karmen Urdanpilleta; Jose Antonio Uriguen (Mandiola); Zorion Uriguen; Xabat Urizarbarrena; Iñaki Uzuriaga; Amaia Zarandona; Ana Zarandona; Inazio Zarandona; Itziar Zarandona; Jesus Zarandona; Nerea Zarandona; Zalao Zenaruzabeitia; Maria Jesus Zubillaga (Urta); Jose Zubizarreta;

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Txerkaratz Kultur Taldekoei, idazlantxo hau egiteko eskuratu dizkidaten ekaiengatik eta, bereziki, Eva Ansola eta Mari Jose Etxanizi, honetarako eskuratu didan laguntasunagatik.

*Anjel Lobera Revilla*  
*Etxebarrian, 1997ko irailaren 7an.*